



BERANGOKO UDALA
BIZKAIA

Berangoko udalerriko saltokiei eta enpresa txiki eta ertainei zuzendutako diru-laguntzak emateko deialdia onartzea, COVID-19k eragindako krisialdiaren eragin ekonomikoa arintzeko.

Alkateak, 2020ko maiatzaren 20ko 436/2020 Alkatetza Ebazpenaren bitartez, Berangoko udalerriko saltokiei eta enpresa txiki eta ertainei zuzendutako diru-laguntzak emateko deialdia onartu du, COVID-19k eragindako krisialdiaren eragin ekonomikoa arintzeko.

Jendaurrera azaltzen da, guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, BERANGOKO UDALERRIAN COVID-19K ERAGINDAKO KRISIALDIAREN ERAGIN EKONOMIKOA ARINTZEKO

1.- HELBURUA

Deialdi honen helburua da Berangoko udalerriko saltokietan eta enpresa txiki eta ertainetan dagoen egoera ekonomikoa arintzen lagun dezaketen neurri ekonomikoak onartzea, COVID-19k eragindako osasun-krisialdiaren egoera kudeatzeko, alarma-egoera deklaratu duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, euren jarduera itxi edo gelditzera behartu dituelako.

Beste administrazio batzuek, hainbat neurri ekonomiko onartu dituzten arren, egia da eragin sanitarioa, soziala eta ekonomikoa oso handia izan dela, eta neurri horiek nahikoak izango ez direla uste dugu, krisialdi honen aurreko jarduera ekonomikoa eta enplegu-maila berreskuratzeko.

Testuinguru honetan, Udalak eragile aktiboa izan nahi du, eta, bere ahalbide eta baliabide ekonomikoen barruan, susperraldi ekonomikoa eta enplegua babesten, sustatzen eta bultzatzen lagundu, COVID-19k eragindako krisiaren eragin ekonomikoa arintzeko laguntzak ezarriz.

2.- LAGUNTZEN XEDEA

Berangoko udalerrian, **publikoari irekita dauden** txikizkako saltokiei, ostalaritzari, zerbitzuei eta mikroenpresei zuzendutako diru-laguntzak dira, alarma-egoera deklaratzearen ondorioz jarduera itxi behar izan dutelako, betiere onuradun izateko baldintzak betetzen badituzte.

3.- ONURADUNAK ETA BETEKIZUNAK

Diru-laguntza hauen onuradun izan ahalko dira Berangoko udalerrian jarduera duten titularrak, pertsona fisikoak edo juridikoak, eta mikroenpresak (10 langile edo gutxiago izanik, urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra 2 milioi euro baino gehiagokoa ez dutenak), baldin eta honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- COVID-19a kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz, euren jarduera aldi baterako eten behar izan dutela.



BERANGOKO UDALA
BIZKAIA

- Euren egoitza fiskala Berangoko udalerrian izatea.
- EJZn alta emanda egotea, baztertuta ez dagoen enpresa- edo lanbide-jarduera batean.
- Legez eraturta eta dagozkien erregistroetan izena emanda egotea, eta Gizarte Segurantzako erregimenean edo dagokien mutualitatean alta emanda egotea, alarma egoeraren deklarazioa egin zen egunean (2020ko martxoaren 14an).
- Establezimendua irekitzeko lizentzia izatea edo 2020ko martxoaren 14a baino lehen eskatu izana.
- Pertsona juridikoen kasuan, deialdi honen xede diren baldintzaren bat betetzen ez duten enpresek, zuzenean edo zeharka, %25eko edo gehiagoko partaidetza ez izatea.

Laguntza-eskaera bakarria aurkeztu ahal izango da pertsona fisiko edo juridiko, sozietate zibil edo ondasun-erkidego bakoitzeko.

EJZren bi epigrafe edo gehiagotan alta emanda egonez gero, onuraduntzat joko da, baldin eta bere jardura nagusia diruz lagun daitezkeen ataletako baten barruan sartzen bada, edo bertan zertzen diren ekintzak jardura horri badagozkio. Diru-laguntza bakarria emango da autonomo eskatzaile bakoitzeko, epigrafe batean baino gehiago alta emanda egon ala ez.

Ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek eskaera bakarria aurkeztu ahal izango dute. Bateriaezina izango da ondasun-erkidegoetako eta sozietate zibiletako bazkideek banaka eska dezaketenarekin.

4.- BAZTERTZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Pertsona fisiko eta juridikoak ezin izango dira onuradun izan, arrazoi hauetakoren batean badaude:

- Zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.
- Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta egotea, edo hartarako ezgaitzen duten legezko debekuaren eraginpean egotea, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne. Hori guztia 4/2005 Legea (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa), edo 3/2007 Lege Organikoa (martxoaren 30ekoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa) betez.
- Diru-laguntzen onuradun-izaera lortzeko, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeraren batean egotea.



BERANGOKO UDALA
BIZKAIA

- Kanpo geratzen da ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak osatzen dituzten bazkideek banaka egin dezaketen eskaera.
- Ez dira onuradun izango kapital publikoko erakundeak, administrazio publikoak, elkarteak, fundazioak, eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuk.

5.- AURREKONTU KREDITUA

Diru-laguntza hauetarako gaitutako kreditua 50.000 €koa izango da, *aurrekontu-aldaketan bidez eguneratzeko aukera alde batera utzi gabe.*

6.- ZENBATEKOA

800€ eskaera bakoitzeko.

7.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, oinarri hauek Udalaren webgunean, www.berango.net, argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita, eta bost eguneko epea emango da eskabide osatugabeak edo akastunak zuzentzeko.

8.- AURKEZTEKO LEKUA ETA IZAPIDETZEKO ESKAERAK

Eskabideak posta elektronikoz tramitatu ahal izango dira berangokoudala@berango.org helbidean edo udaletxean bertan. Aurrez hitzordua eskatuta baino ez da joango udaletxera, eskatutako dokumentazioa entregatzera.

9.- INFORMAZIOA HEMEN:

www.berango.net

<https://www.facebook.com/berango/>

Berangoko Udaletxea, Elexalde, 3

Kontsultak telefonoz egin beharko dira, 94 668 00 08 telefono-zenbakian.

10.- DEIALDI PUBLIKORIK EZ EGITEAREN JUSTIFIKAZIOA

Egoera bereziak eta interes publiko, sozial, ekonomiko eta humanitarioko arrazoiak daude, laguntzen deialdia zailtzen dutenak eta zuzeneko emakida-erregimenean ematea justifikatzen dutenak.

Interes orokorrekoa da jarduera ekonomikoen jarraitutasuna bultzatzeko ekintzak egitea eta behin betiko ixteak izan ditzakeen ondorioak saihestea.



BERANGOKO UDALA
BIZKAIA

Gainera, interes sozial eta ekonomikoko arrazoi batzuek premiazko esku-hartzea justifikatzen dute, eragin sozial eta ekonomikoa ahalik eta denbora laburrenean arintzeko salbuespenezko bide bat aurkitzen saiatuz.

11.- EBAZPENEA

1. Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzen emakidari buruzko espedientea ebazteko eskumena duen udal-organoa Alkatetza izango da.
2. Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Hori guztia, emandako diru-laguntzak diru-laguntzen datu-base Nazionalen argitaratzeari kalterik egin gabe.

12.- ORDAINTZEKO MODUA

Diru-laguntza ordainketa bakarrean ordainduko da, **banku-transferentzia** bidea, diru-laguntza emateko ebazpena egiten den egunetik aurrera.

13.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEA

Berangoko Udalak dokumentazio gehigarria eskatu ahal izango du prozeduraren edozein unetan. Onuradunek eskatutako dokumentazioa aurkezten ez badute, prozeduran atzera egin dutela ulertuko da, eta, hala badagokio, jasotako diru-laguntza itzuli beharko dute.

Berangon, 2020ko maiatzaren 20an. ALKATEA, María Isabel Landa Gaubeka.



BERANGOKO UDALA
BIZKAIA

ESKABIDE-ORRIA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

Izen-Abizenak:

NAN/IFK:

TEL:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

ONDORENGOA NAIZEN ALDETIK:

ORDEZKATUTAKO ENTITATEA:

HELBIDEA:

HERRIA:

POSTA-KODEA:

HONAKOA ESKATZEN DUT

Diru-laguntza ematea, bere jarduera aldi baterako itxi delako.

Kontu zk. diru-laguntza kobratzeko:

IBAN:

.....(e)n, 2020koaren(e)(a)n.

ESKATZAILEA

Stua

Datuen babesa:

zure datu pertsonalak fitxategietan sartuko dira, eta udal-kudeaketari dagozkion zereginak egiteko erabiliko dira, eskaerari erantzuteko. Datuetan sartzeko, datuen aurka egiteko eta datuak zuzentzeko eta kentzeko eskubideak erabil ditzakezu, Udalari idazki bat bidalita.

(3/2018 Lege Organikoa)



BERANGOKO UDALA
BIZKAIA

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Jn./And.:

NAN:

Nire erantzukizunpean adierazten dut datu hauek egiazkoak direla:

1. Helbide fiskala Berangoko udalerrian duen jarduera ekonomikoa duela.
2. Bere jarduera aldi baterako itxi dela, COVID-19 kudeatzeko alarma-egoera deklaratu delako.
3. Baztertuta ez dagoen enpresa- edo lanbide-jarduera batean EJZn alta emanda dagoela.
4. Establezimenduak irekitzeko lizentzia duela.
5. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.
6. Ez duela zorrik Berangoko udalarekin.
7. Zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela, edo hartarako ezgaitzen duten legezko debekuaren eraginpean ez dagoela, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne. Hori guztia 4/2005 Legea (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoa), edo 3/2007 Lege Organikoa (martxoaren 30ekoa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa) betez.
8. Diru-laguntzen onuradun-izaera lortzeko, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeraren batean ez dagoela.
9. Pertsona/erakunde eskatzaileak ez duela inolako zorrik Berangoko Udalarekin, eta aurretik emandako edozein udal-diru-laguntza justifikatu duela, betiere justifikatzeko epea amaitu bada.
10. Konpromisoa hartzen dut Udalari jakinarazteko diru-laguntza emateko eskatu eta kontuan hartutako baldintzaren bati eragiten dion edozein aldaketa.
11. Adierazpen honetan jaso ditudan inguruabar guzti-guztiak egiaztatzeko agiriak eta jasotako diru-laguntza justifikatzeko Udalak eska dezakeen beste edozein agiri eskura ditut eta entregatzeko konpromisoa hartzen dut.



BERANGOKO UDALA
BIZKAIA

12. Baimena ematen diot Berangoko Udalari aurreko betebeharrak guztiak egunean ditudala egiazta dezan.

.....(e)n, 2020koaren(e)(a)n.

ESKATZAILEA

Stua: